

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

3/2021 Foru Araua, otsailaren 10ekoa, Arabako Lurralde Historikoko Kuadrillen azaroaren 20ko 63/1989 Foru Araua aldatzeko

Arabako Batzar Nagusiek, 2021eko otsailaren 10ean egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

3/2021 Foru Araua, otsailaren 10ekoa, Arabako Lurralde Historikoko Kuadrillen azaroaren 20ko 63/1989 Foru Araua aldatzeko.

Zioen adierazpena

Arabako kuadrillak udalerriz osatutako lurraldeko foru erakunde gisa eraturita daude, eta, funtsean, Kuadrillei buruzko azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauak arautzen ditu. Foru arau horrek haien funtzionamendurako oinarritzko arauak ez ezik haien kopurua eta izen ofizialak ere xedatzen ditu.

Foru arau honen xedea da Kanpezu-Arabako Mendialdeko Kuadrillaren egungo izena aldatzea. Kuadrilla hori Maeztu, Urizaharra, Harana, Bernedo, Lagran eta Kanpezuko udalerriek osatzen dute, eta Santikurutze Kanpezun du egoitza.

Horren harira, kuadrilla horrek adierazi du egungo izen hori aldatu nahi duela, nola euskaraz hala gaztelaniaz, eta aurrerantzean hau izan dadin nahi duela: Arabako Mendialdeko Kuadrilla eta Cuadrilla de Montaña Alavesa.

Lehenengo artikulua

Hona hemen Kuadrillen azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauaren 4. artikulua testua:

4. artikulua

Kuadrilla hauek osatzen dute Arabako lurraldea:

Vitoria-Gasteizko Kuadrilla / Cuadrilla de Vitoria-Gasteiz.

Aiarako Kuadrilla / Cuadrilla de Ayala.

Arabako Lautadako Kuadrilla / Cuadrilla de la Llanada Alavesa.

Guardia - Arabako Errioxako Kuadrilla / Cuadrilla de Laguardia-Rioja Alavesa.

Gorbeialdeko Kuadrilla / Cuadrilla de Gorbeialdea.

Añanako Kuadrilla / Cuadrilla de Añana.

Arabako Mendialdeko Kuadrilla / Cuadrilla de Montaña Alavesa.

Bigarren artikulua

Hona hemen Kuadrillen azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauaren 9. artikulua testua:

9. artikulua

Arabako Mendialdeko Kuadrilla honako udalerrri hauek osatzen dute: Maeztu, Urizaharra, Harana, Bernedo, Lagran eta Kanpezu.

Santikurutze Kanpezun izango du egoitza.

Azken xedapena

Foru arau hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 10a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA